Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maitxo Sagardia Olano

Oiartzun, Gipuzkoa (1926)



Aurkibidea

Biografia



Maitxo Astigarragan jaioa bada ere, sei urterekin Oiartzunera etorria da. Oiartzungo kalea ongi ezagutzen du, elizaren atzean zegoen Ollokine baserrian hazia baita. Ollokinen jostundegia zuten izebek, eta makina bat neska pasa ziren bertatik josten ikasteko. Maitxok gerra aurreko eta ondorengo Oiartzun ezagutu ditu, eta aski ederki daki gerrak zer ondorio utzi zuen herrian eta herritarrengan.

Zintak

OIA-031

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-06-19
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-032

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-06-19
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-035

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-06-27
- **Iraupena**: 56 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-036

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-06-27
- **Iraupena**: 61 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-037

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-06-27
- **Iraupena**: 17 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

Pasarteak

1. Olloki

- **Erref**: OIA-031/002
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:03:10. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Astigarragako Olaberrieta baserrian jaio zen Maritxu. Sei urterekin ekarri zuten Ollokinera, aitabitxi-amabitxiekin. Normalean, baserriaren izengoitia hartzen du pertsonak, baina kasu honetan, Olloki aita eta osabari deitzen zioten eta handik hasi ziren etxeari Ollokine deitzen. Aitonak bertsolari ona izan behar zuen.

Transkripzioa
- ... zelayin.

- 'Ta hangua zer zenun gurasutako bat 'o?

- A ez dakit... hara ezkondu zian 'o... hori ez zattut esango. Han sortu giñan behiñipein betzi 'do hamar.

- Jesus!

- Bai.

- Eta noiz torri ziñan honea?

- Honea sei urtekin karri ziten. Nola... Osaba zen nere attan anaiya. Eta nola berak etzakaten... etzuten familiyik ba 'ta... ordun bakizu? Askok ez bazuten ere zeaikan... padrino-madrinak, atautxi-amautxiyak, jasotzen zittuzten hola, asko, len ohittura bazen. 'Ta etzuten beran familiyik eta honea karri ziten 'ta hementxe, hazi 'ta hezi, 'ta bukatu 're hemen in berko dugu.

- Eta Ollokinekua zein zen e...?

- Olloki saten ziyoten osabai, 'ta nere attai 're bai. Attona... attona... hoiyen attan atta edo... Hoin attona 'ro... Usurbilkua baiño han Olloki baserriya 'ro ez dakit zer zen han... bertsolaiya oso ona izan ber zun.

2. Baserritik kalera, mira

- **Erref**: OIA-031/004
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:07:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Mira egin zuen baserritik kalera. Baserrian ez zuten ez argirik ez urik. Kinkilarekin ibiltzen ziren eta ura iturritik ekartzen zuten. Gogoan ditu kuela eta lixiba. Ollokinen ura bazuten, baina hala ere, ur freskoaren bila Auztiko errekara joaten ziren.

Transkripzioa
- Ta mira iñ al zenun?

- Hoixe! Mira ingo e'nun ba? Han? Ez argirik, argirik ez zen e! Nere itxian, baserriya hartan... 'ta askotan, han inguru hartan ez zen izango, garai haitan. Kinkiya, kinkiyakin ibiltzen giñan, 'ta urik eta... zeara zelaira... esto, joten giñan itturrira urruti bastante, joten giñan baldikin uran billa. Hoixe, beitu e! sei urtekin oain dakat goguan nola joten giñan. 'Ta arropak garbitzea... geo arropak bai aittu: gure amak eta bazuten, kuela saten ziyoten hola barrika ondua balitz bezela 'o kupela ondua balitz bezela hola, eta han jartzen zittuten lixiban 'ta eunetan eukitzen zittuzten, zea, arropak beratzen, geo garbitzeko. Hori akortzen naz.

- 'Ta geo hemen ez, Ollokinin?

- Hemen ez. Hemen ura bazen. Hemen ura bazen miño hala 'ta guzti... geo ura freskua nahi genunin hemen bai, zea, Auztiko erreka hamakin bat jonak, joten giñan. Eta zea, Estankoko hor...

3. Baserria baino kalea nahiago

- **Erref**: OIA-031/006
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:14:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Osaba-izebekin bizi zen eta urtean behin baserrira joaten zen gurasoak eta senideak bisitatzera. Hasieran, baserritik kalera mira egin bazuen ere, gerora nahiago zuen kaleko giroa. Ollokinen jostundegia zegoen, eta neskatxek burua altxatzeko esaten zioten, baserritik etorri berritan lotsatia izaki Maritxu. Hika.

Transkripzioa
- Gañeko senidik baserriyan?

- A klaro, klaro. 'Ta haik... senidia baiño urtian behiñ 'o horrelaxe joten giñan hara, hemendikan Astigarraga bakizu? Gaur kotxik badia miño oiñez? Hor Txikierdin barrena... ui, nik ze amurraziyuk aittu egun hartan, ene!

- Ze joten ziñan izebakin 'o?

- Izebakin 'ta, urtian behiñ edo joten nitzan.

- 'Ta nondik barrena joten ziñazten?

- Ui, pues Ugaldetxon barrena. Txikierdin barrena.

- Oaiñ kamiyua den tokitik, gutxi gorabera.

- Bai, bai, bai. Hortxetik...

- Len estratak 'o...

- Kamiyoz-kamiyo, bai baiño gu kamiyoz joten giñen, mendiz izango zen aurrepiria miño... oiñez, 'o zea, kamiyoz. 'Ta bakizu zer den?

- 'Ta han bixita in 'ta buelta?

- Bai.

- Eun bakarreko 'ro?

- Netzako kastigu erra bai hemendikan...!

- Bai e?

- Ui aber? Hemen hola bizi 'ta lagun artiak eta utzi 'ta... urtian behin e hoi, biño ordun 'de pues...

- Miño ama 'ta ikusteko goua izango zenun?

- Ba! ez dakit.

- Geo ya galdu?

- Klaro, klaro.

- Hasiyeran bai mira in miño...

- Si, pero... 'ta geo 're jon baziñan toki onetik txarrea, baiño txarretik onea torri ezkio aber!

- Klaro, hemen gañea kale ingurun eongo zen girua 'ta!

- Hoi ba, hoi ba. 'Ta launak 'ta, jesus! Geo hemen izeba aitzen zen josten: neska kuadrilla gaitzakin 'ta batekin 'ta bestikin kontuk esan 'ta o! Jesus! Ni honea torri nitzanin, akortzen na, Uarteko Karolina, uste 'ut hilla dela, Xegunda ez dakit izautu zenun... pues, Karolina hura geo Ameriketa jon zin ezkonduta, harrek esaten zin: "Altxa zan buru hoi, bestela txikorta jarriko ñet, zean, kokotza azpiyan". Klaro, baserritikan han zea hain mendi tontorretik ezerre zeatu gabia torri 'ta!

- Lotsatu?

- Klaro, hola. 'Ta hoinbeste neska hemen, josten bo! 'Ta Karolina hura tipo gaitza zen, 'ta gañea jartzen zin paretai kontrai beira, "Altza zan buru hoi, bestela jarriko ñet txikorta kokotza azpiyan buru hoi tente eukitzeko" saten zin. Hura beti broman...

4. Euskara, debekatuta

- **Erref**: OIA-031/008
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:17:30. **Bukatu**: 00:19:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Gerra aurretik euskaraz egin zitekeen, baina gerra ondoren galarazita gelditu zen. Eskolan gaztelaniaz egin behar zen. Nau/Tzitt.

Transkripzioa
- Monja asko al zin?

- Bai, ez dakit, zazpi bat 'o ez dakit zenbat izaten zin.

- 'Ta haik kastillanoz aiko zin 'o euskeraz?

- Bai, kastillanoz, ordun euskera ez zen libre!

- Gerra aurretik 'e ez? Ez zen libre?

- Gerra aurretikan gehixio, baiño geo ondorin ez.

- Eta euskeraz hitz eiñ ezkio ze itten zizuten, ze zuek hasiyeran gañea e' zenuten jakingo katillanoz, ez? Eskolan hastin?

- Miño ai... ikasi.

- Berko, miño euskeraz ittetikan kastiguik 'ro jartze al zizuten?

- E?

- Euskeraz hitz eittetik 'o?

- A bai, bai. Hoi 're bai. 'Ta geo, hortikan ere hor, ez dakit zertikan, aspertuta 'ro gure izebak eta, Beko Plazara. 'Ta han genun beste maestra, zea... 'ta klaro, launak 'e hala nittun nik: Rosita Ibañez bat eta... bestia zein nun... eramos traperas, traperas. 'Ta maestra hoi zen, naparra, kazkarra purrakatua e, napar kazkarra hoitakua. Antijuk hemen jartzen zittun eta gui zea... "Ala, venir aqui, venir" 'ta belauniko jarri guri han, kastigado eta kazk! hola jotzen zigun, aittu! Kask-kask-kask zeakin "Mecaguen vuestra fa..." hoi e'tzitt aztutzen e! nola sate... "¡Mecaguen vuestra facha cochina! No sé como no os cae la cara de vergüenza".

- Sate al zun?

- Aittu, maixtra baten leziyua: "Mecaguen vuestra..."

5. Kalean jostatzen

- **Erref**: OIA-031/010
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:21:45. **Bukatu**: 00:23:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Oiartzungo kalean, haur asko elkartzen ziren, beti jostatzeko prest. Ez zuten gaiztakeria handirik egiten, baina beti zirikan ibiltzen ziren.

Transkripzioa
- Jo! Juerga errak pasatzen genittun haiekin, ene! Zinturak lotu... pero, eske ateratzen giñan... arrosiyua izaten zen illunabarretan, 'ta arroxiyoko aitzakiyan atera, arrosiyoa joteko, 'ta juntatzen giñan mordoska, neska mordoska, launak 'ta denak hortxe, zea, geo neska 'ta mutil, juntatu 'ta Paul hoi tartin izaten genun: zinturak bildu elkarrenak eta estatua hor, horren goiti bera bota 'ta Donfelizeneko zeiai, oain jardiña nola in dute, Donfelizeneko itxia horrei aldabai lotu zinturak 'ta gu estatuan atzin gorde; ta-ta-ta, aldaba jotzen genun... hor 'ta beste... Muguruzanin 'ta bueno! Muguruzanin 'e aldaba gaitza zun atiak eta elizan aiñako hola zea bat bada hor eskalletan gotti iyota petrilla gisako bat? Haren atzin gorde gu 'ta gauza berdiña hairi 're 'ta "¿Quién es? Zein da?" 'Ta gu erki, zein den, zea gorde 'ta zinturakin tira aldabai... iñorrez han! Miño guk, jesus! Zenbat holako pika... zeak... pikareskiyak itten genittun, bueno! Eta gozatzen giñan! ¡Qué bien lo pasabamos!

- Gañea haur asko juntatuko ziñazten plazan 'ta?

- Laun asko.

6. Neska-mutilak elkarrekin, baina gordean

- **Erref**: OIA-031/011
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:23:33. **Bukatu**: 00:25:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Prendatan jostatzen ziren: Anton Pirulero kantari, galtzen zuenak halako tokira joan eta halako galdera egin behar. Heldu batzuk haserretu egiten ziren, baina beraiek halaxe gozatzen ziren. Neska eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren, baina etxekoek ez zieten uzten.

Transkripzioa
- Lagun asko, juntatzen giñen bai.

- Koskorriya geitza izango zen?

- E?

- Koskorri geitza izango zela inguru hontan? Oain 'de bada miño...

- Juerga geitza! Antonenekui 'ta... geo prendak itten ere bai. Prendak! "Anton, Anton pirulero. Cada cual, cada cual, aprende su juego" eta hortan, geo galtzen zunak, prenda in ber zun 'ta "bueno, jon ber 'zu holako tokita, 'ta in ber 'zu hau galdetu" 'o besteta... Antonen kanta, "Anton, Anton..." zen 'ta Anton: zea, neska hoin attona zen, kaxkaxuia zen. Dendan hor eoten zen, 'ta hara jon 'ta "Aizu, Anton gazta zuria" ez "Zenbatin saltzen..." ordun, cada... bueno, oan beste modurako gauzak itten ttuzte, miño ordun gu gozatzen giñen prendak itten, bueno! 'Ta eoziñei: "Bueno, hola jon ber

'zu oaiñ horrea jon ber 'zu 'ta hoi galdetu ber yozu horrei 'o hau iñ ber yozu".

- 'Ta errita emango zuten zarrak?

- Bai, noski! "E, zea, ze ibiltzen zazte hemen, zea hola 'ta hola?" Miño gu... ume kontuk!

- Miño zarrai 'ta errespetu geyo? Jende helduai errespetua...

- Bueno, baiño gaixtakiyik, gaixtakiya preziso ez genun gauza txar... gure juergarako. Haiei ez zitzaioten ondo iruittuko miño bueno!

- Zuek erki pasa?

- Bueno! Hay cada cosa... jesus! 'Ta gozatzen giñan erki! Bueno! Neska 'ta mutil.

- Denak nasiyan, ez?

- Bai. Miño itxekun 'ta zeak... ixillik eta hola. Mutillakin 'ta ibiltzeko? Itxekun 'ta ixilik! Ez gaur bezela zea, neska 'ta mutil ez dia... ez zen ibiltzeik. Ibilliko bai pozikan egunez elkarrekin miño, gordeka 'ta hola.

- Miño hoi ya koskortuta? Ya neskatxa inta?

- Bai, bai, bai. Hamasei-hamazazpi urte 'ta.

7. Landetxeko nagusiak

- **Erref**: OIA-031/013
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:26:40. **Bukatu**: 00:29:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:
Ollokinekoak Landetxeko porteroak ziren. Egiane deitzen zioten etxeari; egiatarrena baitzen Landetxe. Udaran etortzen ziren Oiartzunera. Etiketako jendea zen.

Transkripzioa
- Gañekun esan... Ollokine zer zen baserriya baita 're 'o itxia?

- Bai, hazienda eukitzen zuten bai. Behi pare bat edo horrela bai. Hoi, kanpu hau dena, todo esto...

- Ni gotzen naz hoi.

- Hori dena guk ibiltzen genun. Porteruk giñan e. Itxe zean, jubilatun itxe horren hoi denan zaintzen guk zaintzen genun. Porteros.

- Hoi... nola du izena?

- Nere izeba 'ta osaba... Egiania saten ziyoten, beak Egia zuten apellidua, Landetxe.

- Eta haik ze tortzen zin, udaran?

- Udaran. 'Ta urte guziyan gure mende, 'ta guk zaindu. Tarteka tortzen zin, jaitan edo horrela arratsaldia pasa edo miño gañekun...

- 'Ta haik zer zin Donostikuk ó?

- Donostiyan bai.

- 'Ta euskaldunak eta al zin?

- E?

- Euskaldunak 'ta zin?

- Hoixe! Jesus!

- Miño jende dotoria 'ta izango zen?

- Bo! Ordun, zea, lujo haundiya zen. Haiyek, gure nausiyak zin denboran, etiketa haundiko jendiak, de mucha... grandeza. Hiru neskame eukitzen zittuzten... hiru bai, 'ta gañea interina, itxe haundiya zuten han 'e Donostiyan, Kursalea pasa 'ta seittun dute, da itxia, miñon denak... bat bakarra da bizi da.

- 'Ta hemen neskamik bazittuzten?

- Bai.

- 'Ta herrikuk izango zin? Oiartzunguk izango zin?

- Ez. Han Donostitikan zakazkitenak ekartzen zittuzten, geo interina hartzen zuten hemen, itxe haundiya baizen hau 're, hiru planta bazittun. 'Ta jende asko tortzen zin: kartzen zittuten Hazparreindikan bere ilobak, zazpi... sei 'ro zazpi mutil koskor, bakaziyutan. Abuztu guziya hemen pasatzen zuten eta...

- 'Ta haurra haik ibiltzen al zin... zuekin 'ta nasten al zin 'o haik ben?

- Koskortuk zin e! Bai miño hemen herriko jendikin 'ta ibiltzen zin e! bai, bai, bai.

- Tratua 'ta bazuten 'o aires de grandeza 'o zittuzten?

- Ez, hangu haik jendi zeaguk zin, korrientiaguk. Hoik, hemenguk ere gaztiak bai, biño zeak nausiyak berak eran de mucha categoría, kategori haundikuk. Ba! Aberatsa... zer zuten ez zekitela dirua! Hoiek?

- Eta zuek garaia hartan dirua ikusi 're ez askotan?

- Guk ez, baiño jendi hoiyek... esos...

- Oaiñ denak berdintxo bizi ga, miño len kriston difentziya?

- Bai, hori. Eta berdintxo ez, gaiñea leno haundiyak ben ustez zianak, gaur están un poco más abajo que gu biño. Biño gu alletu gea a lo más alto e!

8. Klase diferentziak

- **Erref**: OIA-031/014
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:29:30. **Bukatu**: 00:32:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Lehen, klase diferentzia nabarmenagoa zen. Pobreak ez zuen ezer, eta aberatsak ez zekien zer zuen ere. Gaur egun, zorionez, egoera aldatu da.

Transkripzioa
- Aittu ni ai naz esan 'ta esan e! 'Ta esango 'ute "jendia hoi... ze ai da hoi erua hoi hor san 'ta san, esplikaziyuk hoiri ematen". Hoi, egiya da e! Zertikan denak bizi izandu gea, zean, nik han, nere etxian, hoinbesteko familiya, oaindik aurrerapenik gabeko zea, eta handik honea torri 'ta diferentzia, 'ta geo, urtian poderiyun, orain, orain, aber ze kanbiyua in dugun. Denak e!, denak. Leno pobre antzeko jendia zena oaiñ alletu da aberatsan gradutara e! Porke aber, hasi zattiz kotxikin... eta itxiak, leno errentan izaten zen 'ta errentak 'e eziñ alletuik eta... mixeri... mixeriya? Bai, ez beiñipeiñ oaingo bizitza. Oaingo bizimodua ez, oso diferentia. Eziñak 'e bazian 'ta... oan baiño geyo; eziñak. Gaur jendia bizi da, pues, leno aberatsan kategorira alletuak.

- Bai, oaiñ eozeiñ joten da biajea 'ta...

- Edozeiñ, edozeiñ 'ta eskubide oso-osua. Eskubide oso-osua dakate. Baiñon lendikan, jesus! Difentzi erreko bizimodua! Difentzi errekua, a! Gure izeba gaixua haik oaiñ bizi balia! 'Ta gure izeba bezela beste asko 'ta asko 'ta asko, 'ta ze bizitza: latza! Latza! 'Ta batez 'e, baserritarrak ere bai. Bizitza gorrak eraman 'ttuzte baserritarrak, batez ee. Jo! Gaur aurrerapena asko 'ta asko dago, makinaiyakin, laneko, haziendak 'e kanpoa botzen dia 'ta len bezelako mazka itxea eaman berrik eta zeaik ez.

- Bai difentziya.

- Diferentzi haundiya, bizimodua asko aldatu da, lendikan.

- Miño, Maitxo, gerra ondorin 'ta zea, kalin okerruo pasako zen gosia...?

9. Aldaketak baserrian eta orokorrean

- **Erref**: OIA-031/016

- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:34:25. **Bukatu**: 00:37:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Boom industriala
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Lehen, baserrian familia guztia aritzen zen lanean. Gero hasi ziren gazteak fabriketara-eta neskame joaten. Etxean maiorazgoa gelditzen zen. Maiorazgoa emakumea ere izan zitekeen. Lehen, baserritarrak ez zuen ikasten, baina orain bai. Lehen, aberatsek bakarrik ikasten zuten. Emakumeak ikasten zuen gauza bakarra jostea eta sukaldean aritzea izaten zen.

Transkripzioa
- ...leno, y hoy en día pues...

- Klaro eta ezta, ezta... Estimatu 're berdin 'de ez, oaiñ.

- Keba, keba! Ez, ez. Ezta pentsatu 're, ezta pentsatu 're, estimaziyua. Eske gaur dakazu denetikan, san zattut ba, leno aberatsai beira eongo pozikan hau erosiko 'ta hoi aberatsak, buf! Eta oaiñ, aberatsan graduta gehixkunak... lana itten da, lana bada, eta baserriyak ere ez dia leno bezela. Denak errextasunakin jarriyak dia 'ta leno baserriyan famili guziya enpleatzen zen e! Arta-jorra zela 'ta, belar-ontzik zila 'ta, 'ta illar-biltzia zela, hosta-ittia... bueno, ze lanak ez zian baserriyan! Famili osuak. Eta gero urte batzutatik hasi zen, ya 'o neskame, edo fabrikara, baserritatik. Itxian ber zena, bat, geldittu; geoko izango zena, itxea: mayorazkua.

- Mayorazgua ze izaten zen? Igualtxu zun gizasmia 'o emakumia? 'O beti gizasmia gelditzen zen?

- Itxeako bat zeatua zeona, mayorazgua saten zen. Lomismo emakumia izango zen, igual.

- Zarrena normalin?

- Bai, jeneralin bai. Jeneralin bai. 'Ta geo leno denak batian, denak baserriyan bizitzen zin 'ta baserriyan, hango bizibidia, gañekun ez. Gaurko egunin lanea joten za, zure soldata badakazu, y es muy distinto.

- Lotua baserriya.

- Bueno! Lotua 'ta lan asko iñak dia baserritarrak e. Goor lanak iñak baserritarrak dia. Enkambio gaurkun erraxtasun haundiyak daude, eta gaiñera esan zattutena, baserriyan bat, gero baserriyan jarraittuko duna... 'ta gañekuk, pues 'o neskame dela, edo... gaiñea aber gaurko egunin eozeiñ baserritarrek karrerak badakazkite, neskak eta mutillak.

- Bai, bai, oso difentia da.

- Leno pentsatzen zen baserritarrak ez zutela baliyo ber estudiatzeko, y hoy en día cualquiera te tiene una carrera, y muy bien además. Beste dirodunak, ai 'ta ai 'ta ai 'ta ai, 'ta igual tutik 'e baliyo ez. Hala da, hala da.

Zenbat... Jesus! Zenbatek zenbat diro bota alperrik eta alperrik kategoria nahi zutelako, enkanbio gaurko eunin pues normalidade guztiyakin edozeiñ baserriko neska edo mutillek dakazkitzu karrera ónakin. Leno ez zen posible.

- Hoi onea behintzat, in da.

- 'Ta gaurko eunin pues baliyo dunak, baliyo du 'ta ateratzen dia aurrea. Askok eta askok.

- Ze zue erareko emakumik ikasten seittu gutxik, josten gehiyenak ez?

- Bai, ordun ohittura hala zen. Eta ezkondu ber zunak kozinan ikastea pixka bat. 'O taberna zean batin edo... kozinan ikastea hori 're bai. 'Ta geo jostia iruitzen zen gauza bera, gaurko eunin ondo da zeozer arreglo ttikiyak itteko jakittia, jakittia ona da...

10. Josi eta josi

- **Erref**: OIA-031/018
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:38:28. **Bukatu**: 00:39:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Maitxoren izebak enkargu pila gaitza hartzen zuen josteko, eta gero ezin iritsirik aritzen zen. Goizaldera arte josten aritzen zen, eta baita jaiegunetan ere. Ollokinen bi ahizpa aritzen ziren josten.

Transkripzioa
- ... nahiz eskolan ibili beti pixka bat, 'ta geo geyo. Goizaldea ate 'ta hortxe aitzen giñan, !ay! qué rabia josten goizalde arte 'ta aittu! Eguerri jaiak etorri, Xanistebanak etorri 'ta gure izeba? Bazkaltzeko 're astiyik gabe "Bai, bazkal... arratsaldeko... zea bezpeta 'ro ez dakit noa joteko 'ta" aindu arropa josiko dula 'ta oi... ezertako 're graziyik gabetanikan zea... Xanistebanak? Patxara errin bazkaldu 'ta lasai arrayo... keba! Muturka sartu zerbatte jateko 'ta korri berriz 'e arropak bukatzea arratsaldin norbattei aindua "Bai holoko ordutako..." eramango ziyola bere trajia 'ro soiña 'ro zelakua. Bo! ¡Qué miseria!

- Bat 'e disfrutatu ez. Ez jakin disfrutatzen.

- Haiek hola oittu zien 'ta berak disfrutatu ingo zuten, miño beti lanpian? Bo!

- 'Ta zer zin? Izeba bat miño geyo al zin ba josten aitzen zinak?

- Bestia zen izeban ahizpa; soltera. Beakin bizi zen.

11. Trajeak eta berokiak

- **Erref**: OIA-031/020

- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:40:58. **Bukatu**: 00:43:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Arropa josteaz gain, plantxatu ere egin behar izaten zen. Izebak berezko dohaina zuen josteko, ez zuen inon ikasia. Aste Santuan, prozesiorako egiten ziren traje berri pila. Sortzez Garbiaren egunerako, berriz, beroki pila egiten ziren.

Transkripzioa
- Eta biyek aitzen zin eakusten 'o nola banatzen zuten lana?

- Ez batek zekiyen... zea... bestia 're hor aitzen zen, elkarrekin aitzen zin, miño harek gehiyena plantxa 'ta horrela. Plantxako asko baliyo zun, arropa josi bakarra ez, plantxa 're in ber da geo! Entregatzeko 'ta. Bueno! Hor garaia hartan, esto, Aste Santurako 'ta ze traje pillak josten zittuzten. Ordun ez zen jendia sastreira joten. Komuniyuko 'ta, Aste Santurako 'ta, gizasemin trajik eta, gure izebak... iñun ibili gabia zen zea e! Ikasten. Berezko zea zun, berezko doaiya zun, izebak bai.

- Amakin 'o ez zun ikasi? Beak ikasi zun?

- Ez, bere-berezkua zun, oso, zea... eta zenbat gero, Aste Santuan, leno san zattut, trajik: Erramu Eguneko 'ta, zea prozesiyoa joteko 'ta... O! Ze kanbiyua gauzakin! Prozesiyo zea, Aste Santun, bueno!

- Ordun denak illunak ingo zin ba! trajik?

- E?

- Denak illunak ingo zin, Aste Santuko itten bazin?

- Ez, ez, ez, ez... grisa! Grisa gehiyena, rayatua 'ro lisua edo, grisa gehiyena.

- 'Ta askok traje bakarra izango zuten bizi guziko?

- Ordun ez zen... sastreira jende aberatsa jongo zin miño gaiñekun. 'Ta mutikozkorrak Komuniyuk zila... geo Eguarritan 'o zean Ama Birjiñ euna, Kontzeziyoko, zenbat abrigo jesus! Miño gau 'ta egun, hor, ui! Bizimodu latza! Negua 're? Oaiñ ez bezelakua 'ta teillatutik betti ziriyak iñak hola... teillatua genun libre, ez zea itxiya. Teillatua hau bezela, hola...

12. Neguko lana prestatzen

- **Erref**: OIA-031/022
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:47:30. **Bukatu**: 00:50:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Oiartzunen baziren jostundegi gehiago, baina trajeak egiten gehiena bere izeba aritzen zen. Udaran, ikasleak baserriko lanak egiten aritzen ziren eta ez ziren joaten jostera. Bitartean, izebak negurako lan guztia prestatzen zuen.

Transkripzioa
- Jostundi gehiyo? Baiño ez da nik nere burua alabatzetik eta gauza miño horrek gizaseme arropa e? josten baizun trajik eta horrela... kalian... eta galtzak eta... josten bai baiño beste... emakume prenda gehiyo. Jostunak bazian bai, bai: Joxepa Anbruziona saten geniyona eta Linonekuk, Linonekuk gero Ameriketa joan zian, torri zian 'ta berriz 'e hara joan zin, zea Iriberriku hoin zeak... Iriberriko Linon osaban 'ta andria, 'ta hoik josten aitzen zin hortxen zean Zulotxikiko goian. Eta besteikan...

- Postan 'o bazen norbaitt baita 're yeakusten aitzen zena?

- Postan bai, zea, hor Sanjose hoin ama, aitzen zen bai, josten. Hori bai, horrek itten zun gizasemina 're, oain trajik ez dakit, miño galtzak eta behiñibiñ bai, itten zittun. Bai, jostuna franko bazien hemen.

- Gañea trajia ittia ez da erraxa izango? Soiñak eta erraxauo, ez?

- Bai. Baiña lana, bo! 'Ta geo udaran ez zen etortzen neskatxak 'ta neguan haiyentzako denentzako lana izateko bakizu zenbat in ber izaten genun! Zea, lana mantentzeko, geo haik etortzen zineko, zertikan denak baserriyan enpleatzin zin, baserriya zutenak zailla zen jostea tortzia udaran, negu aldin bai, miño zertik denak baserriyan lana itten zuten, jesus! Belar ontzia zela, metak ittia, hosta txikiyak ittia, tontorrak kentzia... había cantidad de trabajo baserriyan leno, eta famili osuak itxian enpleatzen zian. Gero, urtian poderiyun, hasi zian, san zattutena: 'o neskame dela, neskame 'o fabrikata, fabrikata 're asko jon zen. Beste bizimodu bat hasi zen. 'Ta ordutik honea aber ze aurrerapenak dauden baserriyan: hazienda denak kanpoa botatzen ttuzu, makinak battuzte behiak jeixteko...

13. Arropa berria egin bakarrik ez, baita konpondu ere pila ederra

- **Erref**: OIA-031/024
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:51:20. **Bukatu**: 00:54:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Izeba eta biak aritzen ziren josten. Maitxo errietaka aritzen zitzaion enkargu gehiegi hartzen zituelako. Izeba onegia zen eta kapaz zen dirua ez zuenari ez kobratzeko. Asko ziren berria egiteko dirurik ez eta traje zaharrari buelta ematen ziotenak.

Transkripzioa
- Ez, ez, ez. Gure izebak pillaka han eukitzen zittun hartuak, biek aitzen giñan sesiyun... nik saten niyon "Zertako aintzen yozu geo ez 'zu posible ittia 'ta? Zertik aintzen yozu, geo ezin iñik, muturrak hausten gau 'ta egun hor ai ber 'zu". Biek aitzen giñan diskutitzen. Iñoi ezetzik esateko zeaik kapazidadeik ez, ba!

- 'Ta geo ezin alletuik?

- 'Ta askotan debalde 're ai ber izaten zun. Ikusten bazun... hortan zea zen... ikusten bazun behartsua 'ta eziñin zebillela 'ta kapaz zen ez kobratzeko itten zun lana. 'Ta beste batzuk berriz zea abusu gehiyegi: "Jarri nazu zeak, entretelak eta, botoiak eta... onak jarri e! Onak!" Bai... jarri 'ta geo... tsiu! Ezta akortu 're zea pagatzia, noizpatteko 'atin itten bazizuten! Miño ordun ez zen diruik, ez zen dirurik.

- 'Ta nei san izandu naute, ez zakatenak eta, trajiri buelta eman 'de bai.

- Nola?

- Kanpotik gastatu, eskatu dena...

- A bai! Hamakin bat lan bai hortan, arropak eta, ui! abriguk eta... asko iñ izandu dia horrela, jesus!

- Hoi zuek itten zenuten 'o hoi ya itxian itten zen?

- Ez, ez. Eskatu balitteke etxian ingo zuten, miño gaiñekun...

- Zuek?

- Bai, bai, jesus! Ez zen holako... Gaurko gaztiak probatu ber luteke pixka bat orduko bizitza zer zen, jesus! Hamakiñ bat arropa bai zea... 'o bes ahizpa batena igual, 'ta bestiri txikittu, urratu dena eta ttikiyagui egiñ arropa harrekin 'o abrigua edo txaketa edo soiña edo... bueno, holako arregluk! Ikaragarri.

- In 'ta konpondu pilla 'rra. Ze eosi batez. Saldu itten al zen arropa iña?

- Bai, itten zin, miño oaiñ bezela ezta pentsatu 're, keba, ezta pentsatu 're. Telak ordun. 'Ta gaurko eunin telak denda gutxi dia telak saltzen ttuztenak. Hainbeste arropa dago egiña 'ta.

- Oaiñ kapritxua da geyo, ittiana.

- Bai, bai, leno arregluk? Jesus! Zarragunak edo norbattek eman ziyola 'ta berri-berriya eoki 'ta dena eskatu 'ta berrikotik egin... hoi bai, asko.

- Zurtzittu 're bai geltzerdi pilla 'rra.

- Baita 're! Jesus! Gure izebak hamakin bat...

14. Patroiak

- **Erref**: OIA-031/026
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:55:15. **Bukatu**: 00:57:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Izebak enkarguak hartzen zituen.Dena preparatu, eta neskek haiek josiz ikasten zuten. Patroiak, paperean beharrean, lurrean egiten zituzten, klerarekin marraztuz.

15. Maizterra eta etxejabea

- **Erref**: OIA-031/028
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 01:00:37. **Bukatu**: 01:01:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Eguberrietan, maizterrek errenta ordaintzen zioten etxejabeari. Dirua emateaz gain, kapoiak oparitzen zizkioten nagusiari.

16. Josi eta plantxatu

- **Erref**: OIA-032/001
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Maitxoren izeba jostuna zen. Baserritarrak goizean goiz etortzen ziren trajea probatzera. Izeba batek josi eta besteak plantxatu egiten zuen. Garai bateko plantxak.

17. Petrarena denda eta markesak

- **Erref**: OIA-032/002
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:03:40. **Bukatu**: 00:06:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Petrarena dendan, oihalak eta josteko gainerako gauzak saltzen ziren. Maitxoren izebak denetarik egiten zuen: trajeak, soinekoak... baita alkandora pila ederra ere: Marques de Riscal eta Marques del Norteri.

18. Figurinak

- **Erref**: OIA-032/004
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:07:30. **Bukatu**: 00:08:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Garai hartan ere moda aldatzen zen. Soinekoak mota askotakoak ziren. Bezeroak figurinetatik aukeratzen zuen nolako soinekoa nahi zuen.

19. Jauna hartzera, baraurik

- **Erref**: OIA-032/007
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:14:20. **Bukatu**: 00:17:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Jauna hartzeko, gau osoa baraurik egon behar zen. Meza bukatzean, herriko taberna eta dendetan kafea eta bizigarria hartzen zen. Urte zaharretan, gauean juergan ibili eta zuzenean joaten ziren asko seietako mezara.

20. Agarratua, ezin

- **Erref**: OIA-032/008
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:17:40. **Bukatu**: 00:18:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Kongregazioko kideek ezin zuten agarratua dantzatu. Baziren apaizari jakinarazten zioten zelatariak herrian.

21. Corpusa eta kalbarioak

- **Erref**: OIA-032/010
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:20:10. **Bukatu**: 00:22:30

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Corpus Egunean prozesio ederra egiten zen Oiartzunen. Kaleak maindire txuria eta ihiarekin estaltzen ziren. Kalbarioak ere egiten ziren.

22. Heriotza ere, kategoriatan

- **Erref**: OIA-032/012
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:24:00. **Bukatu**: 00:25:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
'Primera', 'segunda' eta 'tertzera'ko entierroak zeuden. Aberatsen entierroetan eliza gehiago apaintzen zen.

23. San Cristobalen fusilatutakoak

- **Erref**: OIA-032/015
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:38:20. **Bukatu**: 00:41:30

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:
Gerra garaian, Maitxoren izeba jostunek militarren arropa konpontzen aritu behar izan zuten. Bitartean, Maitxoren osaba kartzelan zegoen, San Cristobalen. Tropak herrian sartu zirenean eraman zuten, espia zelakoan. Herriko hiru gazte hil zituzten kartzela hartan.

24. Tropak herrian sartzen

- **Erref**: OIA-032/017
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:43:45. **Bukatu**: 00:47:10

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Tropak Errenteria aldetik sartu zirenean, Ollokinekoak Landetxe aurrean zeuden. Maitxo gaztea zen, eta ez zen jabetzen zer zen gerra. Haiek plazara ikustera joan zenean atxilotu zuten osaba. Bere osaba bezalaxe asko eraman zituzten, eta beste asko hil ere bai. Batzokiak non zeuden.

25. Karlistak eta militarrak

- **Erref**: OIA-032/019
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:48:50. **Bukatu**: 00:50:30

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:
Kilirikupe gainean batzokia zegoen. Gerora 'Círculo Carlista' izan zena aurretik batzokia zen. Arizmendinen militarrak egon ziren. Solchaga jeneralak uda herrian pasatzen zuen; gerra etorri zenean, Oiartzunen zen, eta bertan gelditu zen.

26. Umiliazioak

- **Erref**: OIA-032/021
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:58:04. **Bukatu**: 00:58:37

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gerra:umiliazioak.

27. Emakume soinu-jotzailea

- **Erref**: OIA-035/002
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:00:50. **Bukatu**: 00:04:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Musikari gehienak gizonezkoak baziren ere, tartean bazeuden emakumeak; Iturriozko Portugal baserriko soinu-jotzailea, adibidez. Pikabea anaia-arrebak aritzen ziren soinu-jotzen. Arrebak, gainera, soinua jo eta dantza batera egiten zuen. Umore gaitza jartzen zuen Altzibarko bileran, San Juan iturritik bueltan.

28. Bezperak bukatu eta dantzara

- **Erref**: OIA-035/003
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:04:00. **Bukatu**: 00:05:40

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Altzibarko bilerara jende asko joaten zen. 'Bezperak' bukatu orduko, korrika abiatzen ziren. Errenterian bandak jotzen zuen, baina oso gutxitan joaten ziren bertara.

29. Kongregaziokoek agarratua debekatua

- **Erref**: OIA-035/005
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:08:10. **Bukatu**: 00:10:40

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Altzibarko bileran dantzan ibiltzen ziren. Pasodobleak eta baltsak jotzen ziren, baina beraiek beti sueltoan dantzatzen zuten. Kongregazioan zeudenek debekatua zuten agarratua dantzatzea. Hala ere, emakumea gehiago kastigatzen zuten gizonezkoa baino.

30. Ttunttuna, Kilirikupen

- **Erref**: OIA-035/010
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:22:00. **Bukatu**: 00:23:00

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Igandeetan Kilirikupen ttunttuna jotzen zuten. Baina jendea ez zen bertan gelditzen, nahiago zuten Altzibarko bilerara joan.

31. Arto tartetik harrika

- **Erref**: OIA-035/012
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:25:40. **Bukatu**: 00:28:40

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Astelehenetan igandeko gorabeherak kontatzen ziren jostundegian. Neska batzuek ibilitako komeriak: mutil batzuk etxera laguntzeko zain eta beraiek beste mutil batzuekin dantzan. Garai hartan normala zen arto tartean gorde eta harrika hastea; hortik datorkigu harrikalari ospea oiartzuarrei.

32. Kalabazak

- **Erref**: OIA-035/014
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:31:10. **Bukatu**: 00:32:15

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Nola ezagutu zuen Felix, bere gizona. Altzibarrera irundar pila etortzen ziren. Mutilak eskatzen zuen dantza. Neskek kalabazak ere ematen zituzten.

33. Apaiz 'casamentero'ak

- **Erref**: OIA-035/016

- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:36:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Baziren bikotea egiteko ausardia ez zutenak eta apaiza erabiltzen zuten bitartekari.

34. Arreoa

- **Erref**: OIA-035/018
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:37:20. **Bukatu**: 00:40:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Ezkontzerako arreoa prestatzen zuen neskak, eta, ezkondu aurretik, erakutsi egiten zuen. Etxeko arropa (zurimenta) eta ontzia prestatzen zen arreoan, zein baino zein dotoreago.

35. Garai bateko lababoak

- **Erref**: OIA-035/020
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:40:40. **Bukatu**: 00:41:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Arreoko zurimenta bisitentzako edo gertakari berezietarako gordetzen zen. Medikua etortzen zenerako toalla dotoreak ateratzen ziren. Lehen ez zegoen bainurik; komuna, justu-justuan.

36. Ezkontza eta jaiotza

- **Erref**: OIA-035/022
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:45:00. **Bukatu**: 00:48:25

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Ahal zen arreo dotoreena egiten saiatzen ziren neskak. Pregoiak egiten zirenerako-edo erakusten zen arreoa. Hiru pregoi izaten ziren elizan, ezkontzaren berri emateko, eta, norbaitek zer edo zer argitu behar bazuen, orduan zuen aukera. Jaio etxean egiten zen, medikuarekin edota parterarekin.

37. Amatasuna

- **Erref**: OIA-035/024
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:49:00. **Bukatu**: 00:51:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Medikuak etxez etxe ibiltzen ziren erditzeetan laguntzen. Bera ez da gogoratzen atsolorraz, baina entzuna du. Amak ezin zuen erditu ondorengo egunetan kanpora atera, eta ateratzen zen lehendabiziko aldia elizara joateko izaten zen; 'eliza sartze' esaten zuten.

38. Linboa

- **Erref**: OIA-035/026
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:52:00. **Bukatu**: 00:54:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Lehen, haurra jaio eta lehenbailehen bataiatu behar izaten zen, bestela linbora, betiko ilunera, joaten omen zen, Elizaren arabera.

39. Euskara galarazita

- **Erref**: OIA-036/002
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:02:20. **Bukatu**: 00:03:40

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Karlistak euskararen kontra zeuden. Tristea da norberaren hizkuntza ukatzea. Maitxoren ustez, zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, hobeto da, eta batez ere gurea.

40. Euskaldun elebakarrak

- **Erref**: OIA-036/003
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:03:40. **Bukatu**: 00:07:00

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Baserritar gehienek ez zekiten euskara, eta administrazioan edozein tramite

egiteko beste norbaiten laguntza behar izaten zuten. Maitxok dio hizkuntza guztiak errespetagarriak direla, eta zenbat eta gehiago jakin, hobe, baina euskara lehenengo.

41. Eskolan euskara galarazita

- **Erref**: OIA-036/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:08:40

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Eskolan ere galarazita zegoen euskaraz hitz egitea. Zigor fin-finarekin jotzen zituzten euskaraz hitz eginez gero. Gaur egun hemengo andereñoak daude, baina lehen Gaztela herritik etortzen ziren.

42. Udala eta euskara

- **Erref**: OIA-036/006
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:09:20. **Bukatu**: 00:11:10

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Udal langile gehienak erdaldunak ziren; idazkaria, esaterako. Gero, haren ordez, herritar bat jarri zuten: Inaxio Zalakain. Bere arreba Fidela ere udaletxean aritzen zen lanean, eta baserritarrei asko laguntzen zien.

43. Gerraren ondorena

- **Erref**: OIA-036/008
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:17:50. **Bukatu**: 00:20:20

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Gerraren ondoren, batzokiak galarazita gelditu ziren. Gerra aurretik, Rafael Pikabea eta Aialde kalean zeuden batzokiak. Gerra ondoren, Falange eta JAPkoen lokalak zeuden. Falangistak kanpokoak ziren eta herria haien menpean zegoen. Salaketa eta ezinikusi asko egon zen garai hartan.

44. Oñabiatarrak

- **Erref**: OIA-036/011
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:33:40. **Bukatu**: 00:36:20

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Oñatibiatar gazteak oso abertzaleak ziren. Gerra aurretik batzokian eta ondoren Lartaun elkartean, euskal dantza eta musika irakasten zuen Juanito Oñatibiak. Alkatea aldatu zuten batean, Oñatibiatarrek txistuarekin lagundu zioten alkate ohiari etxeraino. Oñatibia aitaren gogoz kontra.

45. Disparatene eta libretak

- **Erref**: OIA-036/013
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:41:45. **Bukatu**: 00:44:45

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Iturriozko Disparatene denda. Baserritarrek libreta batean apuntatzen zituzten dendetatik hartutakoak eta hazienda salduta dirua zutenean ordaintzen zuten dena batera.

46. Salatariak

- **Erref**: OIA-036/015
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:52:00. **Bukatu**: 00:54:10

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Arizmendienen komandantzia egon zen gerra garaian. Maitxoren osaba San Cristobal kartzelara eraman zuten; Arizmendienen zegoen militar batek esan zion izebari nor izan ziren salatariak; herrikoak ziren.

47. Arizmendieneko etxekoandrea eta atxilotuak

- **Erref**: OIA-036/016
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:54:10. **Bukatu**: 00:58:00

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Oiartzuar asko atxilotu zituzten gerran, eta haietako batzuk San Cristobal kartzelara eraman zituzten. Fidantzapean aske utziko zituztela agindu zieten, baina libretak blokeatuta zeuzkatenez, ezin zuten fidantza ordaindu. Arizmendieneko etxekoandrearen bitartez lortu zuten konponbidea.

48. Baserrietara, lanera

- **Erref**: OIA-037/001
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:55

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraren ondoren, miseria handia zegoen. Kaleko jendea inguruko baserrietara joaten zen laguntzera, janariaren truke.

49. Ogi bila, Nafarroara

- **Erref**: OIA-037/003
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:02:15. **Bukatu**: 00:03:30

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Gerraren ondoren, errotak itxi egin zituzten eta jendea Nafarroara joaten zen mendiz ogi bila, kontrabandoan. Bera ere joan izan da Ereñozura irin bila, izebarekin.

50. Errentan

- **Erref**: OIA-037/004
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:03:30. **Bukatu**: 00:04:50

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Gaur egun etxea erosteko ohitura dago, baina garai batean ia denak errentan bizi ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com